**“ULIAZPI” FORU ERAKUNDE ADMINISTRATIBO AUTONOMOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomoa, 8/1989 Foru Arauaren bitartez sortu zen, eta bere helburua, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-urritasun larria duten pertsonei arreta eskaintzea da, hainbat eratako zerbitzuak eskainiz, hala nola egoitzakoak, eguneko zentroa, aldi baterako egonaldiak, etxeko laguntza eta abar.

Uliazpiren eginkizuna zerbitzuak eta babesa eskaintzea da, Gipuzkoan adimen-urritasuna duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatea garatzen laguntzeko.

Uliazpik eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

- Etxebizitza.
- Eguneko arreta.
- Atsedena hartzeko edo aldi baterako egonaldiak.
- Laguntza teknikoa.

Zerbitzu horien bidez, erabiltzaile bakoitzak banan-banako arreta jasotzen du, "pertsonaren araberako plangintzan" oinarritua, eta horren bidez bizi kalitatearen dimentsio ugariak lehenesten eta zehazten dira (ongizate fisiko eta emozionala, garapen pertsonala, harremanak eta gizarteratzea, hautatzea eta erabakiak hartzea) bakoitzaren behar eta lehentasunen arabera.

Etxebizitza, eguneko arreta eta atseden zerbitzuak honako zentro hauen bitartez eskaintzen dira: Donostia (Donostian), Ategorrieta (Donostian), Fraisoro (Zizurkilen), Zubieta (Hondarribian), Zubillaga Dk.

**ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL ADMINISTRATIVO “ULIAZPI”**

El Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ULIAZPI fue creado mediante Norma Foral 8/1989 y su fin es la atención de las personas con discapacidad intelectual grave residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de distintos tipos de servicios como son: residenciales, centro de día, estancias temporales, apoyo en el hogar, etc.

La Misión de Uliazpi es proporcionar servicios y apoyos que contribuyen al desarrollo de la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias de Gipuzkoa.

Los servicios que proporciona Uliazpi son:

- Vivienda.
- Atención de Día.
- Respiro o Estancias Temporales.
- Apoyo Técnico.

Estos servicios se fundamentan en una atención individualizada basada en una “planificación centrada en la persona” mediante la cual se prioriza y concentran las diversas dimensiones de calidad de vida (bienestar físico y emocional, desarrollo personal, relaciones o inclusión social, elección y toma de decisiones…) en función de sus necesidades y preferencias.

Los servicios de vivienda, atención de día y respiro se prestan a través de los centros: Donostia (en Donostia), Ategorrieta (en Donostia), Fraisoro (en Zizurkil), Zubieta (en Hondarribia), Dr. Zubillaga (en Bergara) y la

(Bergaran), eta Egogain Zentroaren solairu bat ere erabiltzen da (Eibarren).

utilización de una planta del Centro Egogain (en Eibar).

**2021ko aurrekontuan egindako aldaketak, 2020koarekin alderatuz**

**Modificaciones del presupuesto 2021 sobre el 2020**

**Diru sarrerak:**

- **3. Kapitulua: Tasak**

2021eko aurrekontua kapitulu horretan 24.504 euro murriztu da, gehienbat aurreikusi delako hurrengo urterako aldi baterako egonaldiak murriztu egingo direla, COVID-19aren ondorioz.

- **4. Kapitulua: Transferentzia arruntak Aldundia**

2021eko aurrekontuan, kapitulu horrek 17.860.000 euro ditu; 2020an baino %2,53 gehiago, hain zuzen ere, aurrerago xehatuko den 1. eta 2. kapituluak areagotu direlako.

- **7. Kapitulua: Kapital transferentziak**

2021 ekitaldirako 400.000 euroko zuzkidura aurreikusi da, hasierako aurrekontua baino 60.000 euro gutxiago, egungo egoera ekonomikoa dela eta.

- **8. Kapitulua: Finantza-aktiboak**

2021 ekitaldirako ez da inolako aldaketarik aurreikusten.

**Gastuak:**

- **1. Kapitulua: Pertsonalaren gastuak**

Kapitulu honetan aurreikusitako gehikuntza garbia honako kontzeptu hauengatik da:

a) Gazteentzako etxebizitza zerbitzua, eta 2020an sortutako eguneko zentroetako plazak. 2021eko aurrekontuan urte osoan funtzionatzea aurreikusi da.

**Ingresos:**

- **Capítulo 3: Tasas**

El presupuesto del 2021, se reduce en este capítulo en 24.504 euros, debido fundamentalmente al descenso del número de estancias temporales previstas para el próximo año, motivada por el efecto del COVID-19.

- **Capítulo 4: Transferencias corrientes Diputación**

El presupuesto del 2021, contempla en este capítulo un importe de 17.860.000 euros, un 2.53% más, consecuencia del incremento que se va a producir tanto en el Capítulo 1 como en el 2, que más adelante se detalla.

- **Capítulo 7**: **Transferencias de capital**

Para el 2021, se contempla una dotación para inversiones de 400.000 euros, 60.000 menos que el presupuesto inicial, consecuencia del contexto económico que vivimos.

- **Capítulo 8: Activos financieros**

No se prevé ninguna variación para el ejercicio 2021.

**Gastos:**

- **Capítulo 1: Gastos de personal**

El incremento neto previsto en este capítulo se debe a los siguientes conceptos:

a) El servicio de vivienda para jóvenes, así como las plazas de Centro de Día creadas durante el año 2020, en el presupuesto del 2021 se recoge su funcionamiento durante todo el año.

b) Beste alde batetik, datorren urterako aurreikusitako soldata igoerek, baita bestelako gaiek ere —hirurtekoak betetzea, errelebo kontratuak eta abar— kapitulu honetako aurrekontua areagotu dute.

c) Pandemiaren eraginaren, eta gure arretapean dauden pertsonen segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurrien –une oro bizikidetza taldeak sektorizatu beharra, besteak beste– ondorioz, kapitulu honetan ere igoerak daude.

d) Dena den, egoera ekonomikoak jarduera batzuk murriztea ekarri du, esaterako, abuztuko aldi baterako egonaldien zerbitzua.

b) Por otra parte, el incremento salarial previsto para el próximo año, así como otras cuestiones cómo cumplimiento de los trienios, contratos de relevo,… generan incrementos de este capítulo.

c) El efecto de la pandemia y las medidas a adoptar para garantizar la seguridad de las personas a la que atendemos, como necesidad de sectorizar en todos los momentos los grupos de convivencia, entre otras cuestiones, hacen que este capítulo sufra también incrementos.

d) No obstante, el contexto económico ha exigido la reducción de determinadas actividades, así como el servicio de estancias temporales que venía proporcionando en el mes de agosto.

- **2. Kapitulua: Ondasunak eta zerbitzuak**

Kapitulu honek 197.000 euro gehiago izango ditu; pandemiaren eta 2020an onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialditik eratorritako gastuaren ondorioz.

- **Capítulo 2: Bienes y servicios**

Este capítulo sufre un incremento de 197.000 euros, motivado por el efecto de la pandemia, así como por los gastos derivados de una convocatoria de la Oferta Pública de Empleo aprobada en el 2020.

01 Departamentua "Uliazpi Fundazioa" Foru Erakunde Autonomoa/
Departamento 01 Organismo Autónomo Foral "Fundación Uliazpi"

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak<br>Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde Autonom<br>Organismo Autónomo Foral "FUNDACIÓN ULIA | 15.028,00 | 5.095,00 | | | | 400,00 | | 200,00 | | 20.723,00 |
| **Departamentua Guztira<br>Total Departamento** | **15.028,00** | **5.095,00** | | | | **400,00** | | **200,00** | | **20.723,00** |

